

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI), 2012KO ABUZTUA

Bidaiarien sarrerak %4,6 gehitu ziren Euskal AEn 2012ko abuztuan

Gaualdiek %2,1eko hazkundera izan dute

Euskal AEn hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak: 2012ko abuztuan, 279.407 erregistratu ziren, aurreko urteko hil berean baino 12.262 sarrera gehiago, %4,6ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Arabara heldutako bidaiarien kopurua %1,9 gehitu da, Bizkaia heldutakoen kopurua %6,9 eta Gipuzkoara heldutakoena %2,8.

Euskal AEn, estatuko bidaiarien sarrerak %2,2 handitu dira. Estatutik etorritako bidaiarien kopurua hiru lurraldeetan gehitu da: Bizkaian, %4,1 hazi dira eta Gipuzkoan, %2,0; Araban %2,7ko jaitsiera. Euskal AEn atzeritarrek %8,0 handitu dira. Araban %10,3, Bizkaian %10,9 eta Gipuzkoan %3,8 gehiago izan dira.

Estatuko bidaiarien artean, etorritako bidaiarien ehunekorik handienak Murtzia, Andaluzia, Madril eta Gaztela-Mantxatik etorritakoenak izan dira. Baina gutxitu egin da Katalunia, Galizia, Aragoi eta Asturiastik etorritakoen kopurua. Atzeritarretatik, Belgika, Frantzia, Holanda, Erresuma Batua eta Europar Batasunetik kanpoko herrialde europarretatik etorritakoak izan dira gehienak. Nabarmen jaitsi dira Italia, Grezia eta Iberoamerikakoak.

2012ko abuztuan 591.412 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko abuztuarekin alderatuta gaua igaro dutenen kopurua %2,1 gehitu da, guztira ia 12.080 gau gehiago igaro baitituzte. Gaualdiek urte arteko bilakaera positiboa izan zuten Araban (%2,9) eta Bizkaian (%3,7), baina Gipuzkoan, ia ez da aldaketarik egon (%-0,1).

Egonaldien batez besteko iraupena gutxitu egin da, %2,3 txikiagoa izan da, 2011ko abuztuaren aldean Euskal AEn orokorrean: 2,17 egun 2011ko abuztuan eta 2,12 pasa den abuztuan. Araban, batez beste 1,91 egunez egon dira bertan bisitariak (1,90 egun 2011ko abuztuan), Bizkaian 2,07 egunez abuztuan (2,13 iaz hilabete berdinean), eta Gipuzkoan, 2,27 egunez (2,33 egunez 2011ko abuztuan).

Plazakako betetze-maila %2,1 hazi da, %69,94 izan da 2012ko abuztuan Euskal AE osoan. Gorakada horrek hiru lurraldeetan izan du eragina: Bizkaian betetze-maila %4,3 hazi da, 2011ko abuztuko %65,87tik pasa den abuztuko %68,67ra. Gipuzkoan %0,7ko aldaketa positiboa dago, 2011ko abuztuko %75,82tik aurtengo %76,34ra; Araban jaitsiera ia ezdeusa da. (%0,0), 2011ko %58,55etik aurtengo %58,54ra.

NEKAZARITZA-TURISMOKO ESTABLEZIMENDUAK

2011ko abuztuaren aldean %5,2 bidaiari gehiago etorri da Euskadira, eta %3,8 gau gehiago igaro dituzte.

Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetako bidaiari-sarrerak: Pasa den abuztuan 18.458 bisitari etorri ziren Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetara, horrek esan nahi du, %5,2 bisitari gehiago izan direla 2011ko abuztuan baino. Lurraldez lurralde begiratura, ikusten da, halere, Araban bisitari gutxiago izan direla halako establezimenduetan, % 23.4 gutxiago. Bizkaian %13,9 hazi da eta Gipuzkoan, %8,4. Estatutik etorritako bidaiari kopurua %3,0 igo da Euskal AEn: %10,8 igo da Bizkaian eta %6,5 Gipuzkoan, baina Araban %22,3 jaitsi da. Atzeritarren kopurua igo egin da (%17,7) Euskal AEn; portzentaje dezente igo dira Bizkaian eta Gipuzkoan, baina nabarmen jaitsi Araban.

Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan egindako gualdiak 79.964 izan dira abuztuan, lehengo urtean baino %3,8 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasak positiboak izan dira Bizkaian (%8,7) eta Gipuzkoan (%7,4); Araban %20,3 jaitsi dira.

Bidaiariko batez besteko egonaldia %1,4 urritu da Euskal AE osoan, 2011ko abuztuaren aldean: duela urtebete 4,28 egun; aurtengo abuztuan 4,22. Araban %4,2 hazi da kopuru hori, 2011ko abuztuan batez beste 4,03 egun igaro zituztelako eta 2012ko abuztuan 4,20. Bizkaian, aldiz, %4,6 urritu da egonaldia; 2011ko abuztuan 4,09 egun igaro zituzten batez beste bidaiariek eta 2012koan 3,90 egun. Azkenik Gipuzkoan jaitsi egin da apur bat (%-0,9); 2011ko abuztuan 4,47 egun igaro zituzten eta urte honetako abuztuan 4,43 egun.

Plazen betetze-maila %0,5 handitu da, %58,58tik %58,87era; Bizkaian eta Gipuzkoan hazi baita, %6,0 eta %0,5, hurrenez hurren. Araban, ordea, %17,5 jaitsi da okupazioa.

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazaritza turismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE						ARABA / ÁLAVA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
	08 2012	(%)	08 2011	(%)	Δ %		08 2012	(%)	08 2011	(%)	Δ %		08 2012	(%)	08 2011	(%)	Δ %		08 2012	(%)	08 2011	(%)	Δ %	
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																								
GAUALDIAK	591.412	100	579.332	100	2,1		85.546	100	83.164	100	2,9		276.542	100	266.599	100	3,7		229.324	100	229.569	100	-0,1	
Estatukoak	365.227	62	370.379	64	-1,4		59.973	70	60.311	73	-0,6		168.068	61	166.858	63	0,7		137.186	60	143.210	62	-4,2	
Atzerrikoak	226.185	38	208.953	36	8,2		25.573	30	22.853	27	11,9		108.474	39	99.741	37	8,8		92.138	40	86.359	38	6,7	
Hiriburua	363.544	61	351.263	61	3,5		64.558	75	61.797	74	4,5		172.900	63	166.148	62	4,1		126.086	55	123.318	54	2,2	
Litoral	73.727	12	74.201	13	-0,6		-	-	-	-	-		27.916	10	27.779	10	0,5		45.811	20	46.422	20	-1,3	
Barnealdea	154.141	26	153.868	27	0,2		20.988	25	21.367	26	-1,8		75.726	27	72.672	27	4,2		57.427	25	59.829	26	-4,0	
BIDAIA-RIEN SARRERAK	279.407	100	267.145	100	4,6		44.717	100	43.865	100	1,9		133.583	100	124.908	100	6,9		101.107	100	98.372	100	2,8	
Estatukoak	159.521	57	156.162	58	2,2		27.518	62	28.278	64	-2,7		75.776	57	72.768	58	4,1		56.227	56	55.116	56	2,0	
Atzerrikoak	119.886	43	110.983	42	8,0		17.199	38	15.587	36	10,3		57.807	43	52.140	42	10,9		44.880	44	43.256	44	3,8	
Hiriburua	167.403	60	160.047	60	4,6		32.478	73	31.215	71	4,0		82.143	61	77.982	62	5,3		52.782	52	50.850	52	3,8	
Litoral	29.777	11	27.140	10	9,7		-	-	-	-	-		12.666	9	11.017	9	15,0		17.111	17	16.123	16	6,1	
Barnealdea	82.227	29	79.958	30	2,8		12.239	27	12.650	29	-3,2		38.774	29	35.909	29	8,0		31.214	31	31.399	32	-0,6	
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,12		2,17		-2,3		1,91		1,90		0,5		2,07		2,13		-2,8		2,27		2,33		-2,6	
BETETZE-MAILA PLAZAKA	69,64		68,19		2,1		58,54		58,55		0,0		68,67		65,87		4,3		76,34		75,82		0,7	
Hiriburua	75,28		75,15		0,2		62,39		64,51		-3,3		74,83		73,77		1,4		84,97		84,24		0,9	
Litoral	76,64		76,52		0,2		-		-		-		66,75		67,73		-1,4		84,25		82,96		1,6	
Barnealdea	57,07		53,95		5,8		49,20		46,20		6,5		58,33		52,47		11,2		58,83		59,57		-1,2	
BETETZE-MAILA GELAKA	73,07		72,18		1,2		61,19		61,47		-0,5		72,71		71,02		2,4		79,34		79,03		0,4	
Hiriburua	79,30		79,42		-0,2		66,15		68,50		-3,4		79,44		79,04		0,5		88,32		87,63		0,8	
Litoral	79,91		78,98		1,2		-		-		-		70,42		71,29		-1,2		86,35		84,14		2,6	
Barnealdea	59,40		58,18		2,1		48,27		46,64		3,5		61,06		57,91		5,4		61,75		64,02		-3,5	
NEKAZARITZA TURISMOA																								
GAUALDIAK	77.964	100	75.145	100	3,8		8.775	100	11.009	100	-20,3		24.193	100	22.254	100	8,7		44.996	100	41.882	100	7,4	
Estatukoak	64.914	83	65.244	87	-0,5		7.447	85	9.438	86	-21,1		19.058	79	18.665	84	2,1		38.409	85	37.141	89	3,4	
Atzerrikoak	13.050	17	9.901	13	31,8		1.328	15	1.571	14	-15,5		5.135	21	3.589	16	43,1		6.587	15	4.741	11	38,9	
BIDAIA-RIEN SARRERAK	18.458	100	17.548	100	5,2		2.091	100	2.729	100	-23,4		6.204	100	5.446	100	13,9		10.163	100	9.373	100	8,4	
Estatukoak	15.388	83	14.939	85	3,0		1.906	91	2.454	90	-22,3		4.862	78	4.388	81	10,8		8.620	85	8.097	86	6,5	
Atzerrikoak	3.070	17	2.609	15	17,7		185	9	275	10	-32,7		1.342	22	1.058	19	26,8		1.543	15	1.276	14	20,9	
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	4,22		4,28		-1,4		4,20		4,03		4,2		3,90		4,09		-4,6		4,43		4,47		-0,9	
BETETZE-MAILA PLAZAKA	58,87		58,58		0,5		32,35		39,20		-17,5		57,89		54,59		6,0		70,84		70,48		0,5	
BETETZE-MAILA GELAKA	60,94		61,18		-0,4		32,84		39,66		-17,2		59,52		57,87		2,9		74,73		74,43		0,4	

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)

Argibide gehiagorako:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

ETHI-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua